

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Aurkeztera goazen *Uztaro 55* zenbakia bost artikuluz osaturik dator. Euskal pentsamendu garaikidea lantzeko orduan garrantzizko diren saioak daude bertan.

Bostetarik hiru giza eta gizarte-zientzien teorien arabera egindako lekuan lekuko ikerketa-aplikazio zuzenak dira. Laugarrena, dokumentazio historikoa bide, hemezortzigarren mendeko diputazioen Konferentzia izeneko batzarretako aktetan agertzen diren hezkuntza- eta kultura-proiektuen azterketa da. Bosgarrena, berriz, UEUren 33. ikastaldiaren sarrera-ekitaldian, 2005eko uztailan, Iruñeko Larraonan egungo euskaltzainburuak emandako hitzaldia dugu.

"Ikuskaritza-jardueran kalitate-kontrolak Europako eremuaren ikuspegitik" artikuluan, ikuskaritza-jarduerari konfiantza ematen dion kalitate-kontrolen faktorea aztertzen da bere baitan bezala Europari begira harmonizazio-prozesuetan tematuz. Batetik, enpresek euren jarduera merkatu berrietara zabaltzeko dutenez, ekonomiaren globalizazioari buruz hitz egitera behartzen gaituela konstatzen da. Bestalde, Europar Batasunak kontabilitatearen alorrean harmonizazioa bultzatzeko egin duen proposamena dela eta, nazioarteko kontabilitate-arautegiaren berdintasun-prozesuan murgilduta gaudela baieztatzen da. "Europar Batasunean Ikuskaritza Legala indartuz" 2003ko txostena, eta 2004an igorritako Arzteztarau Proposamena kalitate-kontrolen ebaluazioa-irizpide gogorrez beterik datoz. Gomendioan, urteko kontu-auditoreen independentzia nahitaezkoa dela jendearen konfiantza lortzeko azpimarratzen da. Garbi dago, bada, kontabilitateko harmonizazioa ikuskaritzako harmonizazioarekin batera egin beharko litzateekela. Hori horrela ezarri, Europar Batasunean kalitate-kontrolen ezaugarri orokorrak aipatzen dira. Arauak ez balira beteko, diziplina-arauak hasiko lituzkete erakunde begiraleek. Auditoreen kontrol-sistemak, prestakuntza-ekintzak bezala ulertu behar dira. Bi metodologia onartzen dira. Tutelazko berrikuspina eta binakako berrikuspina edo auditorez auditorekoa. Arrakastaren gakoa lan hori egiten duen adituaren prestakuntzan egongo da. Europar Batasunean zertuko diren kontrolak homogeenak eta irizpide berdinen arabera izan beharko dira. Arzteztarau Proposamenaren ekarpen nagusia interes publikoko sozietateen ikuskaritzak egiten dituzten auditoreen kalitate-kontrolarena da. Auditoreek ondorengo ezaugarriak bete behar dituzte: independentzia, ez bakarrik auditoreena baita kontrolak egiten dituztenena ere; prestakuntza eta gaitasuna, herrialde bakoitzaren esku uzten da beste herrialdeetako auditoreak onartzeko behar diren baldintzen zehaztapena; bezeroen onarpena, hots, bezeroen arriskua kontuan hartu behar da; kontsultak; dokumentazioa, eta azkenik, lanen gainbegiraketa. Hori guztia Espainiara erakarriaz esan behar da auditoreak bi kalitate-kontrol moten eraginpean daudela: bata, barne kalitate-kontrola, idatziz formalizatua, eta ondorengo helburuak ziurtatu behar dituen: independentzia, zintzotasuna eta objektibotasuna; prestakuntza eta lanbide-gaitasuna; bezeroekin jarraitzea eta berriak onartzea; kontsultak eta berrikuspenak. Eta bestea, kanpo kalitate-kontrola da. Berorren barne bereizi behar dira: korporazioen kalitate-kontrola (Espainian hiru ordezkartza-korporazio daude:

Kontuen Azterlari Zineginen Institutua, Auditore Ekonomisten Elkargoa eta Auditoreen Elkargo Orokorra). Bestalde, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren kontrol teknikoak. Ikerketa honetan partaide diren autoreen aburuz, urteko kontuen ikuskaritza-lana zerbitzu publikoa izanik, ezin dugu utzi profesionalen esku bakarrik, ez baitaie egokia iruditzen auditoreen autorregulazioa.

"'Iurac Bat' Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak (1839-1868)" artikulua XIX. mendean zehar Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioetako ordezkariak Espainiako gobernuaren saio unitaristatik defendatzeko egindako hezkuntza- eta kultura-planteamenduak aztertzen ditu, hitz eta asmo izatetik harago gutxitan igaro baitziren. Konferentzien abiapuntu zuzena Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen aurkitu behar dela esanez abiatzen da. Hiru diputazioen politika adosteko organo konfederal bat zen Konferentzia. Txandaka egiten ziren hiru probintzietan. Arteka Nafarroa ere inplikatu zuten. Aldirik oparoena gerra karlista bien artean (1839-1872) izan zen, Foralitate Berria izeneko fenomenoarekin bat eginez. Esan daiteke espainiar estatu baitako "estatu" bezala jardun zirela. 1876an Kontzertu Ekonomikoen babespean autonomia-mota berri bat abiatu zen bien bitartean iraun zuen, orduan erakunde ekonomiko-administratibo bilakatu zelarik. Aurkezten den artikuluan 1939tik 1868ra doan epea ikertzen da. Diputazioen elkarlan hura norainokoa izan zen neurtzeko asmoz idatzia dago. Joseba Agirreazkuenagak (1999) pausatutako oharretatik harago egin nahi da. Bestalde, adieraz dezagun Coro Rubio (2003) ere garaiko agente sozial zenbait ikertzera hedatu zela (politikoak, idazleak, Eliza, etab.). Oraingoan Konferentzietako proiektuak sistematikoki arakatu eta deskribatzen dira. Ikerketa bi partetan eraman da. Lehenean, hezkuntzari dagokiona aztertzen da. Bigarrenean, gainerako kultur proiektuak erreparatzen dira. Oinarrizko hezkuntzaz udalerririk arduratzen ziren, 1855eko desamortizazio zibil eta eklesiastikoaren legeak eragin arte. Konferentziek gogor kritikatu dute foru-lurraldeei zegozkien eskumenak euskarri gabe uzten zituelako. 1857an Moyano Legea onartu zelarik erreginari bidaliko zioten protesta-gutuna adostu zuten diputazioek, hezkuntza beren eskumena zela argudiatuz. Madrilgo Konferentzian artikulua batzuei zuzentzeko egin zizkieten. 1859an Erret Aginduak zuzenketa horietako gehienak onartu zituen. 1868an, ordea, auziak susperraldi berri bat izan zuen. Erdi- eta goi-mailako hezkuntzak, diputazioen eskumenak izanik, gastu handiagoak zituztelako, hezkuntza-erakundeak sortzeko proposamenak egin ziren Konferentzietan. 1841ean Bergarako Mintegia berrezarri nahi izan zen. Urte berean ere Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea birsortu eta lehen eta bigarren mailako industria-eskolak sortzeko erabili nahi izan zen. 1947an hirurentzat institutu bakarra sortzeko aukera azaldu zen Konferentzian. 1859an emakumeentzako "casa correccional" bat sortzeko proposamena ekarri zen Konferentziara. 1963an hiru probintziak eta Nafarroak elkarrekin nekazaritza-eskolak sortzeko aukera aztertu zen. 1846an goi-mailako hezkuntza berreskuratu nahirik Oñatiko Unibertsitatearen aldeko proposamena egin zen. 1862an Gasteizko diozesia sortu zen. 1865eko Konferentziak Gasteizen Zirujauen Elkargo bat sortzeko proposamena aztertu zen. 1867an Universidad Vasco-Navarra sortzeko ideia agertu zen. Bestelako kultur proiektuak aztertzen dira ondoren. Honela 1841ean, 1859an eta 1863an "Sociedad Vascongada" berpizteko proiektuarekin ibili ziren. Baita nekazaritza, abelazkuntza eta industriako euskal produktuen erakusketak egitearen proposamena ere. Argitalpenei, lehiaketei eta

kultur subentzioei dagokienez ere badaude saioak. 1850eko Konferentzian euskal historia, erakunde eta ohiturak ezagutarazteko beharraz hitz egin zen. Literatur txapelketaren ideia ere agertu zen. 1851n Abadiak euskal herri-festak bultzatu zituen euskaraz. Hala ere, haren lore-jokoak Hegoaldera 1877an bakarrik helduko dira. 1867an Novia de Salcedo-ren *Biografia* liburuaren hainbat ale erostea adostu zuten. 1867ko Konferentzian Monumentu Artistiko eta Historikoen Komisioak eskaturiko diru-laguntzaren erregua jakinarazi zien Araba eta Gipuzkoari. Euskararen inguruko proiektuez ezin esan dezakegu euskal literatura promozionatzeko egitasmo zehatzik zegoenik. 1957an euskara jakitearen beharra aipatu zen. 1859an arrazoietakoa bat hizkuntza izanik euskal tertzio berezituak sortzeko beharra azaldu zen. 1865ean Konferentzian Zirujauen Elkargoa sortzeko ibilitako arrazoiaren artean ere hizkuntzarena ageri da. Hitz batean, Konferentzietan auzi politikoek eta ekonomikoek lehentasuna izan zuten. Kulturaren arloan jarduera ez zen oso emankorra izan. Euskara ez zen kultur balio bezala inoiz bultzatu, komunikazio-tresna praktikoa gisa kontuan hartzen zen.

"Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak *Hiztegi Batuaren* zeregina" artikulua, egungo euskaltzainburuak emandako hitzaldiaren transkripzioa da. Lehen puntuan, Euskaltzaindiak eta UEUK, erkidegoan duten historia aipatzen digu. Bigarrenean, hizkuntza orokorra-hizkuntza berezituak gaia dakar gogoetara. Lehenari dagokionez, hau diosku irmoki eta zehatz: euskalgintzaren historian badira euskararen sustatze-ahaleginetan letra larrietan idaztekoak. Horien artean daude "debeku garaietan bereziki" Euskal Unibertsitatearen nahia eta gogoia. Horretarako bidean, Euskaltzaindia bera. Berebiziko ahalegina egin behar izan zuten euskararen aldeko hainbat langilek lehen UEUren aldeko ekintzak Iparraldean lehenik eta gero Nafarroan kokatu ahal izateko. Orduko eraginaren ondorio dira gure artean euskalgintzan diharduten erakunde eta elkarte anitz. Egungoari loturik Akademiak euskalgintzan ari diren beste eragile batzuekin harremanak ondu eta egokitu behar ditu. Bakoitzaren ideari muzin egin gabe, baina jakinik, hori bai, zein den Euskaltzaindiaren egitekoa. UEUekin dauden harremenei dagokienez, INGUMA datu-base bikainaren inguruan elkarrekin dagoen hitzarmena nabarmentzen du. Bigarren puntuan sartuz Euskaltzaindiak xede berezietarako hizkeren alorrean egindako ibilbidearen jarraipen bat egiten du. Ondotik 1991n Saran *Hiztegi Batuaren* gaian aurkezturiko txostena jorratzen du. 2000. urtean *Hiztegi Batua* izenekoaren itzulia bukatu zela eta bigarren itzuliari hasiera eman zitzaiola agertzen du. Azken hori hasi bide zen Bilbon 2000. urteko ekainean egin zen hiztegi-gintza-jardunaldian, bertan Akademiak euskalgintzaren esparruan eragile eta egile zirenen ahots eta iritziak entzun eta jaso nahi izan zituela azpimarratzen du. 2000. urteko urtarrilean, "Eguneroko hitzen lantaldea: proposamena" deitu txostena goraitpatzen du haren onoderengo eraginari dagokionagatik: bigarren itzuli horretan sistematizazio egoki baten bidez egungo bizimoduak behar dituen hitzak zedarritzea eta *Hiztegi Batua* deiturikoan barruratzeari zuzen helburu. Laudion, 2002ko abenduan aurkeztu zen lehen zerrenda, administrazio-zuzenbide lexikoari dagokiona. Eta gisa horretan hizkera juridikoaren esparrura garamatza. Hitz jakin bat termino juridikoa izango da, baldin eta antolamendu juridikoak esanguraren bat ematen badio. Gainera hitz juridikoak kategorizatu egiten ditu: eksklusiboak (oso gutxi dira); eta elkarrekikoak (zuzenbide hiztegiaren gehienak horrelakoak dira). Gaztelaniazko akademiaren hiztegiak dioena eta Katalunian egindako autuak

dakartza ere. Aurrera begira, Euskaltzaindiak bete dezakeen zeregina zehaztera dator: berak dituen eginkizunen artean, hiztegitantza dela printzipalenetakoa, alegia. Akademiak unibertsitateko eta lanbideetako jendearen lana behar du, hitzak eta adierak egoki uztartzen diren jakiteko, eta hitzen bilakaera historikoa, morfologikoa, semantikoa eta diskurtsiboa ondo egokitzen diren hizkuntzaren garatze-prozesuan jakiteko. Auzolanerako deia eginez amaitzen du.

"Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean" artikululak gazteak eta telebista-kontsumoaren azturak erlazionatzen ditu. Mundua gero eta hurbilago dago telebistari begira jartzen garenean, baina gero eta zailago egiten zaigu hitz eta irudi bakoitzaren atzean dagoen errealaren isla zein den zehaztea eta jakitea, adieraziaz egiten da sarrera. Komunikazioa ikasi beharreko zerbait baita. Eskolak beste sozializatzen du herritarra gizarte-komunikazioak. Alfabetizazio mediatikoa inposatzen da. Modu dinamikoan ulertu behar dugu. Irakurketa denotatiboak ez dira nahiko, konnotatiboak ere behar ditu herritarrak mezu mediatikoa ulertzeko. Ekoizten diren eduki sinbolikoak modu askean eta kritikoa interpretatzeko ezinbesteko zaigu alfabetatzea modu jasoan gauzatzea. Ipar nahiz Hego Euskal Herriko ikasle eta irakasleekin elkarlanean jardun du EHUKo ikerlari-talde honek. Lan kuantitatibo eta kualitatiboa aldi berean. Inkestak berrogeitik gora galdera zituen. 14-18 urte bitarteko gazteekin egin dira eztabaida-saioak. Gazteek musika eta literatura, informazioa eta iritzia, publizitatea, zinema etab. kontsumitzen dituzte. Artikulu honetan agertzen diren datuak eta iruzkinak telebistari buruzkoak bakarrik dira. Ia gazte guztiak dira telefono mugikorraren jabe, ia denek darabilte normaltasunez walman-a eta musika-aparatua. Erdiek dute sarbide beregaina. Eskola-gazteetatik herenak bere ordenagailua du. Laurdenak telebista propioa, eta Interneteko lotura. DVDak ohikoak dira, bideo-irakurleak eta grabagailuak bezala. Hala ere, astean gehien kontsumitzen duten hedabidea telebista da. % 2k adierazten du telebista ez dela berarentzat hedabide aipagarria. Paperezko prentsa idatzia oso aparte gelditu da gazteen ohiko kontsumoan. Irudiaren lilura bizi dute Euskal Herriko gazteek. Irudia ahozkotatzen gainera bizi dute. Oralitatea musikari lotuta bizi dute. Telebista berriz entretenimendu-modu bat bezala bizi dute % 84k. Berdin antzera ikusten dute telebista neskek eta mutilek. Egunerogunero ikusten dutenen kopurua % 81 da Araban. Iparraldean, aldiz, % 68ra jaisten da. Ikasketa-eredu elebidunekoek % 5 gehiago kontsumitzen dute. Estatus baxukoek % 12 gehiago. Fikzioaren bila jotzen du gazteak. Genero errealak kirol-emankizunekin hasten dira. Kultura bera ere, atzerago dator. Hegoaldeko gazteak Espainiako telebista hartzen du begietan. Modako serietan eredu espainola nagusitzen da. Genero informatiboetan, hurbiltasuna eta publikotasuna da hobetsia. Profil linguistikoa kontuan harturik euskaldunek nahiago dute bertako katea, baina erdaraz. Erdaldunek, aldiz, nahiago espainiarra. Euskararen sinesgarritasuna handia da euskarazko kate bakararentzat % 61ek dio ondo edo oso ondo informatzeko duela. Iparraldeko gazteak, berriz, Frantzia du ipar telebista hautatzean. Serieen kontsumoa neskeei lotuago dagoela ageri da Iparraldean. Genero informatiboa, Frantziako bigarren katean da sinesgarriena. Telebista-kontsumo kritikoa bila jarrita jarrera nagusi bi bereizi litezke gazteen artean genero errealari buruz hitz egitean: begi kritikoz ikusten dituztela albistegiak; irudiekin liluratzeko joera dutela eta hor kritikotasuna galtzen dutela. Gazteek sinestesia moduko bat bizi dute irudiaren aurrean. Sinestesiak sentsazioen nahasmenaz eta

bateratzen hitz egiten digu. Badirudi diotela: telebistan gauzak ondo ikusten dira, baina arrazoiak ez dira erakusten. Internet hartzen dute bide alternatibotzat. Telebistako albistegietan joera ohikoak omen dira exajerazioa eta manipulazioa. Familian eta lagun-taldeetan daude norberaren hautu politikoak definitzeko eta indartzeko esparruak. Gazteekin Hegoaldeko zortzi ikastetxetan albisteak ikusi eta komentatu zituzten. Zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki, alegia. Azken hitz modura hau esaten zaigu: telebistan letra ezagutzen dute, ez metafora. Eduki sinbolikoen deskodifikazio beregaina egiteko lantresna intelektualik ez zaie ematen. Iparraldeak ez du Hegoaldera begiratzen, eta Hegoaldeak gauza bera Iparraldearekin. Gazteak ondo daki ordenagailuak erabiltzen, sarean mugitzen, telebista pizten, baina eskolak ez du edukien azterketaren mailan, ezta diskurtsoen analisisian ere prestatu. Ez du hori etxean konpondu.

"Istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joera duten pertsonen eta substantzia adiktiboaren kontsumitzaileak diren pertsonen nortasunaren profila" artikulua ikerketa-lan handiago baten atala da. Nortasunaren bereizgarriak aztertuz hasten da. Bost Faktore Handien eremuan oinarritzen direnez, eredu horren azalpenari ekiten diote. Nortasuna deskribatzeko erabiltzen diren milaka bereizgarriak bost dimentsio handitara biltzen dituen ikuspegia da. Neurotizismoa, estrabertsioa edo kanporakoitasuna, irekitasuna, kontzientzia edo ardura, eta atsegingarritasuna faktore handien eta bakoitzaren fazeten deskribapena egiten duena, alegia. Hainbat ikerketak nortasunaren ezaugarriak erlazionatzen baititu istripuak edukitzeko joerarekin, gaixotasunak jasateko joerarekin eta gertaera negatiboak izateko joerarekin. Nortasunaren ezaugarriak eta substantzia adiktiboaren kontsumoa erlazionatzen dituzten ikerketa anitz ere daude. Horien berri zehatza ematen zaigu hasierako diskripzioetan. Ondoren hipotesiak formulatzen dira. Erabilitako metodoa aurkezten zaigu ondotik. Ikerketan 16 eta 60 urte bitarteko 425 euskaldunek (245 emakume eta 180 gizon) parte hartu zutela adierazten da. Laginaren % 70 batxilergoko ikasleek osatzen zuten eta beste % 30 Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko funtzionarioek. Tresnak aipatzean lagineko kide bakoitzak hiru galdekizun erantzun zituela esaten zaigu. Jarraitutako prozedura agertzeko orduan esaten zaigu ikerketa taldeko bi kidek egin zutela datu-bilketa, parte-hartzaileen ikastetxean edo lantokian. Emaitzak bi ataletan bereizita agertzen dizkigute. Lehenik istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joerari dagozkionak dira. Bigarrenak substantzia adiktiboaren kontsumoari lotuta daudenak. Azkenik, eztabaida irekitzen da. Laburbilduz, ikerketa honen bidez, istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joera duten pertsonen nortasunaren profila neurotizismo eta kanporakoitasun dimentsioen puntuazio altuak eta kontzientzia dimentsioaren puntuazio baxuak definitzen dutela ikusten da. Era berean, substantzia adiktiboaren kontsumitzaileak diren pertsonen profila neurotizismo nahiz irekitasun dimentsioen puntuazio altuak, eta atsegingarritasun dimentsioen puntuazio baxuak definitzen dutela ikusten da.

